

Bioregions Facility aurkezteko ekitaldia:

Jakinduria konektatu, eskualdeetan ekiteko



2020ko martxoak 9
Euskalduna Jauregia, Bilbo

Testuingurua

Bioekonomia iraunkorra, inklusiboa eta handinahia funtsezkoa da garapen iraunkorrerako eta gure ekonomiak karbonoa behar ez izateko. Bioekonomiarantz aurrera egiteko, ekosistemak eta biomasa ongi erabili behar dira, eraginkortasunez, eta iraunkortasuna gogoan izanda. Era horretan, produzituko diren biomaterialak, produktuak eta zerbitzuak gauza izango dira berriztagarriak ez diren beste batzuk ordeztzeko; adibidez, plastikoak, hormigoia edo altzairua, karbono igorpen handiak eragiten eta energia kantitate handiak behar baitituzte.

Eraldaketa horretan, eskualdeetan ekitea ezinbestekoa da, aintzat harturik ekosistema naturalen espezifikotasuna, basoen eta beste biobaliabide batzuen eskuragarritasuna, eta baldintza teknologiko zein sozioekonomikoak. Hala ere, xede hori erdiesteko eta aurrera egiteko, nazioarteko lankidetzak izan behar du eskualdeetako ekintzen funtsa, Europako ikuspegi bateratu baten barnean.

Basoak oinarri dituen bioekonomia sustatu nahi duten eskualdeek batera lan egin behar dute, esparru horretan duten ahalmena bideratzeko. Besteak beste, estrategia eta ekintza bateratuak bultzatu behar dituzte, trebeziak sortu, bat egin, eta beren esperientzien berri eman elkarri: berrikuntza, erakundeak, azpiegiturak, eta inbertsioak.

Trukeari eta lankidetzari hasiera emate aldera, **Bioregions Facility** aurkezteko ekitaldia egingo da Bilbon.

Egitaraua

9:00 Izena emateak

Hasteko saioa

9:30 Ongietorria eta hasiera instituzionala
Iñigo Urkullu, Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria

Europako testuingurua

Burua: Marc Palahí, Europako Baso Institutuko zuzendaria

09:55 **Sarrera: zer da basoak oinarri dituen bioekonomia zirkularra**
Peter Wehrheim, Bioekonomia eta Elikagai Sistemak unitateko burua, Europako Batzordeko Ikerketarako eta Berrikuntzarako Zuzendaritza Nagusia

Puntualtasuna eskatzen da



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN
ETA AZPIEGITURA SAILA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO E INFRAESTRUCTURAS

10:10 Aliantza publiko-pribatuak bioekonomiari begira

Philippe Mengal, BBIko zuzendaria

10:25 Bioekonomia zirkularrean inbertitzea

Adrian Enache, Basogintza Sektorean eta Landatar Garapenean espezialista Europako Inbertsio Bankuan

10:40 Bioekonomian berrikuntzarantz aurrera egitea: inbertsiogile probidentzial batengandik ikasitako ikasgaiak

Nick Lyth, Green Angel Syndicate Ltd enpresako CEOa

10:55 Atsedena kafea hartzeko

Eskualdeetako ikuspegiak

Burua: *Inazio Martínez de Arano, Europako Baso Institutuko Mediterraneoko bulegoko burua*

11:15 Bioekonomia zirkularra lortzeko eskualdeen rola

Ulrika Landergren, Eskualdeen Europako Batzordeko Baliabide Naturalen Batzordeko burua (NAT)

11:30 Zer da Bioregions Facility

Diana Tuomasjukka, Bioregionseko koordinatzailea, zientzialari burua bioekonomiari buruzko programan, EFI

11:45 Euskal bioekonomia: esperientziak eta planak

Arantxa Tapia, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapena eta Azpiegituretako sailburua

12:10 Ipar Kareliako bioekonomia: esperientziak eta planak

*Risto Poutiainen, Ipar Karelia eskualdeko ordezkaria, Finlandia
Harri Palviainen, Business Joensuuko burua*

12:35 Ipar Renania-Westfaliako bioekonomia: esperientziak eta planak

Hubert Kaiser, Basogintza eta Naturaren Kontserbazioa Saileko burua eta, Ipar Renania-Westfalia estatuko Basogintza Administrazioiko burua

13:00 Eztabaida eta amaitzeko adierazpena

13:15 Argazkia

13:20 - 14:15 Sareak ehuntzeko bazkaria

Txangoa

14:30 - 19:00 Euskal ekonomiaren adibideak: produktuak, paisaiak eta zerbitzuak

Puntualtasuna eskatzen da



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

EKONOMIAREN GARAPEN
ETA AZPIEGITURA SAILA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO E INFRAESTRUCTURAS